

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Zaborren 2018ko tasa ordaintzeko epea irekitzea

Nik, David López de Arbina Ruiz de Eguinok, Arabako Donemiliagako Udaleko alkate naizen honek.

Jakinarazten dut: Jakinarazten dut 2019ko martxoaren 15etik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, zaborra biltzeko zerbitzuaren tasaren 2018ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2019ko martxoaren 15etik apirilaren 15era.

B) Betearazte aldia: 2019ko apirilaren 16tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua.

A) banketxeetan helbideraturako ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko tokiak:

– Kutxabanken bulegoak.

– Laboral Kutxaren bulegoak.

– Internetez, Donemiliagako Udalaren web orrian: www.donemiliaga.eus/es/ayuntamiento (Nire ordainketa).

III. Gomendioak.

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak, eta helbide aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Donemiliagako Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2019ko martxoaren 1a

Alkatea

DAVID LOPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO